

IZENONDOAK

1. Irakurri arretaz beheko esaldiak eta aukeratu ageri diren izenondoak.

- Osabaren autoa zahar-zaharra zen eta orain beste berri bat erosi du.
- Datorren urtean eskolako ikaslerik nagusienak izango gara.
- Aitak oso bazkari goxoa prestatu du.
- Udako gau epelak gustukoak ditut.
- Atzo oso eguraldi kaxkarra izan genuen, euria egin zuen egun osoan.
- Amak oso lan gogorra dauka eta gaur umore txarra ekarri du.
- Lorategiko zuhaitza oso sendoa eta handia da.
- Egun hauetako hotzarekin askaririk hoberena txokolate beroa da.
- Bizkarreko minarekin altxatu naiz ohearen koltxoia oso biguina delako.
- Askok gustatzen zait zure jertse gorri berria.

2. Irakurri arretaz beheko esaldiak. Markatu ageri diren graduatzaileak.

- Ikasgela berria handi samarra da.
- Gaurko bazkaria goxo-goxoa zegoen.
- Azterketa arras erraza zen eta oso nota ona atera dut.
- Ogitartekoa handiegia da neretzat. Nahi baduzu puska txiki bat emango dizut.
- Egun hauetako gauak hotzegiak izan dira eta landareak izoztu dira.
- Edaria bero-beroa dago eta izotza botako diot.
- Zalantzarik gabe, Arrasatekoa inoiz dastatu dudana trentzarik hoberena da.

3. Aukeratu, kasu bakoitzean, graduatzailerik egokiena.

- Julenen txakurra oso / samar bizkorra da, zurea baino bizkorregia / bizkorragoa.
- Ordenagailu hau motel -motela / -motelegia da, inoiz ez dut lana bukatuko.
- Eskolako gelarik handiena / handiagoa psikogela da.
- Istripuaren ondoren autoa guztiz / oso hondaturik zegoen eta ezin izan zuten konpondu.
- Igandean igo genuen mendia aldapatsuagoa / arras aldapatsua zen eta leher eginda bukatu nuen.
- Gaur hotz handiena / handia egiten du eta etxean aurkitu dudak jertserik lodiena / lodia jantzi dut.

4. Ordenatu maila txikienetik handienara.

- sendoegia sendoa nahiko sendoa sendo-sendoa
- azkarra azkarregia azkar samarra oso azkarra
- mehea mehe samarra mehe-mehea meheegia
- altuegia nahiko altua altua oso altua